

## ARBOLA BI, SAGARRA ETA INDIYA-GAZTAÑA

NERE ADISKIDE JAUN KARMELO ECHEGARAY, EUSKAL IZKRIBALARI BIKAÑARI

Arbola luzea zan  
indiya-gaztaña,  
iñork atzeman ezin  
zeikiona gaña;  
sagarra ere charra  
etzan berez, baña,  
nola bestea baitzan  
lerden ta apaña,  
moch makurrak etzuben  
luzitzen ark aña.

Aundiyak chikiyari  
asko aldiz ala,  
esaten zion, charar  
bat baizik etzala,  
beti makurturikan  
ikusten baitzala,  
nor naik gañetik frutak  
kendutzen zizkala,  
ari gaztañak iñork  
kentzen etzizkala.

Bizitokiya ere  
leku zakonian  
zeukala, lur, askotan  
urtan egonian;  
besterik zala berak

zeukana gañian,  
basarri eder churi  
on baten oñian,  
mendiskan eguteran  
toki bikañian.

Ala beti egiñaz  
burla eta parra,  
penaz tristeturikan  
zeukala sagarra,  
gertaturik urakai  
bat oso zakarra,  
eta amildurikan  
urakin malkarra,  
goizbea joa izan  
zan arbol zangarra  
. . . . .  
Ez aundiya izatez  
urgullurik izan,  
non lur jo bailezaken  
arbolaren gisan:  
au ere uste berez  
beste denen gain zan,  
galayagorik etzan  
modukoa baitzan,  
bañan amildurikan  
lurra jo ta iltzan.

RAMON ARTOLA.